

Oier Araolaza

DANTZARIA

## Hiru hilabete bakarrik izango dira

**L**aurogei urtetik gora dituzte, baina badakite ez diotela inoiz ume izateari utziko. Kartoizko hexagono bat jarri zieten paparrean zenbaki batekin eta destinoarekin: *Expedición a Inglaterra*. 1937ko maiatzaren 21 malapartatu hartan haurtzaroa izoztu zitzaizen; betiko ume, gerrako ume bihurtu ziren.

800 bidaiari hartzeko prestatuta zegoen itsasontzian 4.000 lagun sartu zituzten. 3.840 ume, 80 andereño, 120 laguntzaile, 15 apaiz eta 2 sendagile. Itsasoa oldartu zitzaizen Bizkaiko Golkoan, eta zorabiatuta botaka hasi ziren umeak. Lurrean kiribildu, begiak itxi eta negar-zotinka pasa zuten gaua. Tarteka txistulariak jartzen zituen dantzan, kantuan egiten zuten eta Santurtziko portuan amarengandik entzundako hitzak errepikatzen zituzten beren kolkorako: “Hiru hilabete bakarrik izango dira, hiru hilabete bakarrik izango dira”.

Sei hilabete pasa eta itzuli zen lehen multzoa. Bi urteren buruan etxean ziren asko, baina 400 umek Ingalaterran segitu zuten. Gurasoak hilda batzuk, kartzelan besteak, non jakin ez zenbaitek... ez zeukaten nora itzuli



DANI BLANCO

beranduago, 25 inguru bizi dira, horietako batzuk ezagutu ditugu Southampton-en, Habana barkuak porturatu zituen hiri berean.

Mikrofono aurrean galderei erantzuteaz gogaituta antzeman ditugu, baina kamerak itzaltzean inoiz kontatu gabekoak kontatzeko prest, irribarre bihurriarekin batzuetan, emozioz totelka bestetan. Harrigarria bada ere, seme-alaba eta biloba askok ez dute oraintsu arte jakin gurasoak gerrako umeak zituztenik. The Basque Children UK'37 elkarte 2002an sortu zen. Ordura arte, 65 urtez, ezkutuan gorde zuten beren jatorrizko bekatua: gerrako umeak izatea.

Seme-alabak eta bilobak besotik lagunduta etorri dira. Kartoizko hexagonoa eta beren zenbakia daramate paparrean orain ere. Txistularia zortziko bat jotzen hasi da eta piztu egin dira haien aurpegiak. Dantzan hasi eta gure onena eman dugu, barruak hustu ditugu. Besarkatu gaituzte eskerrak emanez. Ez dago asko esateko. Dantzan adierazi diegu guk esan nahi geniena. Begiekin erantzun digute beraiek. 75 urtetan zehar zenbat aldiz errepikatuko zizkioten beren kolkoari amak Santurtziko portuan esandako hitzak. Hiru hilabete bakarrik izango dira. ■



Sei hilabete pasa eta itzuli zen lehen multzoa. Bi urteren buruan etxean ziren asko, baina 400 umek Ingalaterran segitu zuten. Gurasoak hilda batzuk, kartzelan besteak, non jakin ez zenbaitek... ez zeukaten nora itzuli

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ezagutu nuen bigarrena, Etxamendirekin batera afari batean. Berrogei bat urte joan dira, ez alferrik. Ordura arte Eñaut Bidegorri zen niretzat lehena “etzian aberatsa etzian pobrea, bainan haren bihotza zer urrezko kaliza” kantuz ikasia, gure haurtzaro gaztelatuarentzat aurkikuntza. Gogoan ditudan kantaldi andanatik at, Donostian diskoa grabatzen ari zirelarik izandako harreman estua bereziko nuke, *Ariana ene arreba* kantua prestatzen ari zireneko hura. Haien antzera ni ere mutikotan elizako koralean hasia, armonian hasi nintzaizen uzkur, herabe laguntzen, kantuaren bukaera aldera

### Eñaut Larralde

azkarki beroturik ahotsa askatuz bukatu genuena. “Errak” esan zidan, gurekin ari beharko hukek. Ez zen nire asmoa gure arteko josteta hura edonorekin konpartitzea, bere hartan utzi genuen. Bere herrian, Izuran guk emaniko kantaldiaren ondoren kantatu genuen azkenekoz elkarren ondoan, ostatuan baso bat makulu, taloren bat estakuru. Maite nuen bere metal ahotsa, tripa leize sakona balu bezala atera eta afinazio zuzenez belarriratzen zuena, hartzen zuen plazera begiz adierazita, emari ugarian. Kantuaren militanteak, kantua bilakatu zuen borroka gailu, bere bikotekide Eñaut arsenal. ■

